

"Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa gazteei zuzendutako jarduera, programa eta zerbitzuetan" ikastaroen balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2022ko formakuntza planeko beste bi ikastaro antolatu ditu

'Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa gazteei zuzendutako jarduera, programa eta zerbitzuetan' ikastaroak antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak otsailean eta martxoan zehar Bilbo eta Donostian. Ikastaro honen helburua esku-hartze sozialean dihardutenen, udaleko teknikariak, aisialdiko begiraleak eta gazteekin lan egiten dutenen prestakuntza gauzatzea da. Aisialdi espazioetan aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren inguruan ikuspuntu zabala izan nahi dutenentzat bideratuta dago.

Ikastaroa **Ruth San Cristóbal eta Itziar Sánchez**, Amesten, aniztasun funtzionala eta inklusioa elkarteko koordinatzaileek eman dute.

23 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 70, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 30 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.

Ikastaro bakoitzak 13 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta